



Gazte batek kulturaren esparruan bizi izan duen esperientzia xumean oinarrituta, testu honetan kultura, eta zehatzago, euskara gazteen artean zabaltzeko zenbait ideia eta gako proposatzen dira. Horretarako, abiapuntutzat Bilbo hirian antolatzen den Harrapazank ekimena hartuta, gaur egungo egoera aztertu eta gazteen eta kulturaren arteko zubiak eraikitzeko era posibleak azaltzen dira. Gogoeta honek ezer berririk deskubrituko ez duelako jakitun izanik, testu honen helburua esperientzia eskaseko gazte baten ikuspuntutik gaur egun gazteek kulturarekin duten harremana zein den argitzen laguntzea da.

Giltza-hitzak: Gazteak. Kultura. Euskara. Zubiak. Harrapazank.

Egun on eta eskerrik asko hemen izateagatik. Niretzako plazer handia da nirea bezalako esperientzia xumea partekatzeo aukera izatea horrelako jardunaldi batean. Ane Zugaza Goienetxea naiz, 18 urteko bilbotarra eta gaur hemen egoteko arrazoi nagusia Bilboko **Harrapazank** talentu lehiaketan parte hartu izana da.

Geroxeago arituko naiz programa honen inguruan baina testuinguruan kokatzeko **Harrapazank** 9-18 urtera bitarteko gazte bilbotarrei zuzendutako ekimena da, horien artean sormena eta aisialdi sanoa sustatzeko asmoz sortua. Nik azkeneko bi ediziotan hartu izan dut parte, nire kanta eta olerki propioak aurkeztuz, eta ekimenak betetzen duen funtzioa izugarri garrantzitsua dela ikusi dut, Bilbo bezalako hiri erdaldun batean euskararen oinarritutako giroa eta harremanak sortzen baitira. Gaur izugarri gustatuko litzaidake programa honen nondik norakoetan sakontzea, baina gaur nire xedea bestelakoa da: etorkizunean gazteen eta euskal kulturaren artean zubi iraunkorrek eraikitzeko moduaren inguruan gogoeta egitea, hain zuzen ere, bizi izan dudana esperientzia xumean oinarrituta.

Pixka bat nire testuinguru pertsonala azalduz, esan nezake nire idazteko eta musikarako zaletasuna motibazio pertsonal batetik etortzeaz gain, etxeko giroa barruan nuen hura garatzeko

ezinbestekoa izan dela. Eta nik esan dezaket zorionez aukera hori izan dudala baina ulertzen dut gaur egungo gazteek kulturarekin lotura bera ez sentitzea. Horregatik, bizitzan zehar ikusi dudanean oinarrituta aipatutako lotura falta hori aldatzeko zenbait gako dakartzat:

1. Mitoak eraitsi: Nire bizipenean oinarrituta, beti lotu izan da kultura formalitatearekin, zuzentasunarekin, eta agian horretan pentsatzean burura datozkigun lehen irudiak areto handiak betetzea, ordubetez obra bat isiltasunean kontenplazten egotea, nobela luze eta konplexuak ulertzea... dira. Eta honekin ez dut ulertarazi nahi aurretik aipatutakoa baztertu behar dugunik, izan ere, garena eta izan garena ulertzeko ezinbestekoak dira.

Hala ere, garrantzitsua da gaztea harrapatzea eta horretarako ezinbestekoa da bere errealitatek hurbil dituen erreferentziak bilatzea. Esaterako, erabil dezagun teknologia. Azken 10-12 urteotan teknologia berriek izan duten garapena izugarria izan da, ez du atzera bueltarik eta hurrengo urteetan era esponentzialean jarraituko du garatzen. Gustatu zein ez, egoera berrietara moldatu behar dugu: etorkizuneko gazteak teknologiaren bidez harrapatu behar ditugu.

Eta hau beste hamaika adibideetako bat besterik ez da.

2. Gazteok gazteon alde lan egitea: Bilboko **Harrapazank** bezalako programetan gazteak dira gazteon mesedetan lanean aritzen direnak eta horrek berebiziko garrantzia du aurreko puntuan azaldu bezala hurbil ditugun erreferentziak direlako. Gainera, horrelako ekimenek esparru informal batean euskararen erabilera sustatzeaz gain, gazteon artean erreferenteak sortzea lortzen da. Gazteek haien hurbil dituzten beste batzuk sortzeko eta euskaraz harremanak lagunarteko giroan lotzeko kapaz eta gogotsu direla ikustean haien buruari galdetuko diote: "Eta zergatik ez ni?".

Sormenari ez zaio gaur egun behar duen garrantzia ematen: sortzaileak behar ditugu, euskarak sortzaileak behar ditu hainbat esparrutan (zientzia, teknologia...) irudimena artearekin lotu ohi den kontzeptua bada ere.

3. Gazteon parte hartzea sustatzea: Gaur egun gazteak kontuan hartzen ez dituztelako sentimendu orokorra dagoela esatera ausartuko nintzateke. Zergatik ez, bete ditzagun horrelako aretoak gaztez, entzun ditzagun haien hitzak, ametsak. Zeinek ulertuko ditu gazteon kezkek, arazoak eta horiek konpontzeko irtenbideak gazteok baino hobeto?

Ez dut ezer berririk aurkitu eta azaldu, eta horren jabe naiz, baina gutxienez gure, gazteon hitza entzuteko prest dauden ondarearen aldeko langileak hemen egoteak asko pozten nau. Eskerrik asko Eusko Ikaskuntzari ekimen honen parte txiki bat izateko aukera emateagatik, eta elkar ikusiko dugu laster.